



Haritz Eguren

Sagardogilea. Zerain

Oiharten, sagastiak, sagardotegia eta nekazal etxea daukagu. Famili arteko negozioa da eta Covid-19-ak bete-betean harrapatu gaitu, bai iaz eta bai aurten. Hala ere, aurrera egiteko gure ilusioa ez digu zapuztu, eta sagardo berezi berriak atera ditugu aurtengo urtean. Gure nekazal etxe, bodega eta makinarian ere hobekuntzak egin ditugu. Beste pauso bat harago, datorren urterako erronka bat dugu: digitalizazioa, gure negozioarako trazabilitatea eta prozesu guztiaren kontrola eramaten lagunduko diguna. Beraz, zer esanik ez, dirulaguntzak esku zabalik hartu ditugu. Gure sagardotegiko sagardo guztia, Euskal Sagardoa, Jatorri deiturakoa da eta alor horretan ere eskertzekoa da Aldundiak egindako apustua eta emandako laguntzak.